

Landetako oihana

Anitzek uste dute, bereziki XVIII. eta XIX. mendeetan Brémontier eta Chambrelant-ek egin zituzten lanei esker, Landetako pinu oihana garai horretan deusetarik sortua dela. Bizkitartean gauzak konplikatuagoak dira. Lehen mendean, Pomponius Mela geografo ospetsuak zioen : "Akitaniako eskualdea, itsasoari hurbil, hareaz estalia da eta bikea eta arraxina hornitzen duten zuhaitzak leku hortan ugari dira." San Paulinek aldiz Buch eskualdeko biztanleak, Arcachon aldean, "Piceos boios" deitzen zituen, erran nahi baita bikez beltzatuak diren Buch-tarrak. Buch-tarren lurraldea, bikea eta arraxina ekoizten duten zuhaitzez estalia da. Egur horrek, suan ezarriz geroz, bazter guztia kestatzen du. Bikea, Antzin Arotik hasirik arrakasta handiko produktua zen: urpean egiten ziren obren uretik begiratzeko baliatzen zen.

Oihanaren bilakaera

Lentiskaren* (hau Ekialde Ertaineko zuhaixka da) arraxinari nahasiz, bikeztatzen ziren dupak eta tupinak eta horrela arnoari ematen zitzaion gustu berezia. Orain ere greziarrek arraxina gustuko antzeko arno bat ekoizten dute eta arno horrek sekulako arrakasta du.

Ekoizpen metodoetan sartuz bezala, urratsez-urrats eta aitzinamenduz-aitzinamendu, agintearekin adostasunean eta berdin zenbait aldiz aurka eginez, pinuaren balorapena garai modernoan arte garatuz joan da. Hori dela eta, Gaskoinian Landetako eskualdeak aldaketak jasan ditu, bilakaera horren eragilerik handiena Napoleon III. a izan zelarik.

Pinu-oihana hedatuz zoalarik, arraxina-ekoizpena aldatuz zoan eta ur bazterrak arraxinategi bilakatu arau, jendearen parte bat aberastu zen; horiek guziek eskualdeko ekonomia gainazpikatuko zuten. Jendetzaren parte bat laborari-etxetiar estatututik langile izatera behartuak izan ziren.

*Lentiska: ekialde ertainean aurkitzen den zuhaixka.



© ADPCI Aquitaine



© CDT 40

Landetako oihana




Landetako oihana 900000 hektareako oihanalde zabala da. Frantziako oihan-eremuaren 1/5a osatzen du. Garona eta Aturri ibaien eta Ozeano Atlantikoaren artean kokatzen da. Lehen, Landetako gunek leku idotsuak ziren eta XIX. mendean oihandu zituzten. Landaketa handiak egin ziren. Landetako oihanaren % 90a pribatuen esku dago baina 1970ean lekuko parke natural bat osatua izan da oihanaren gerizatzeko. Oihanaldearen parte handia pinudia da eta hartarik erretxina ekoizten da. Egurrak, aldiz, paperaren oreka hornitzen du.

IGN mapa baten irakurketa : Uztaritzeko oihana

Esk. :
1/25000

IGN mapa : Uztaritzeko oihana. Ikus ilustrazioa ondoko orrialdean.



Argibideak aztertu

■ Mapako argibideak gordez, ikasleak utziko dira beren gisa seinaletikaren ezagutzen (orientabidearen seinaleak, bideen irudikapenak, nibelen kurbak...).

■ Haurrek eginen dituzten hipotesiak bilduko dira eta elkarrekin eztabaidatuko.

■ Mapako argibideak erakutsiz hauen irakurketa eginen da. Ikasleen hipotesien egiaztatzeko parada izanen da.

Uztaritzeko oihana aurkitu

Mapan, Uztaritzeko oihana aurkitu behar
dugu. Haurrak utziko dira mapari begira.

Oihanaren ingurumugak

Erhiz haurrek oihanaren ingurua egingen dute.

Ingurumugak nola itxuratuak dira mapa honetan?


Oihanaren kokagunea

Maparen zein aldetan kaustitzen da Uztaritzeko oihana?

<i>Eskuin/ezker/gain/behere</i>	bezalako
ezaupideak	erabil daitezke, halaber
planoaren	koordinadak edo puntu
kardinalak.	

**Ikus ondoko
orrialdeko mapa**

Uztaritzeko oihana



© IGN-Paris - 1995 TOP 25 1245 OT

Uztaritzeko oihana

Ikus mapa bera afixan, handiago eta kolorez.

